



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2010-01-16**

VIII.URTEA 1.904. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

GARIKOITZ ALTUNA PILOTARIA

«Elizalderen marka hausteak ilusio handia egingo dio Zeberio II.ari»

AMEZKETA Altuna II.a Binakako Txapelketatik kanpo gelditu zen, begian jaso zuen pilotakada baten ondorioz

BINAKAKO TXAPELKETA Zeberio II.a-Badiolak gaur jokatuko dute finala Galarretan, Urriza-Lizasoren aurka 6



Zeberio II.ak Badiolaren laguntza beharko du Urriza-Lizasori irabazteko. P. GOÑI

Badator bertsolari gazteen plaza

BETERRIKO III. TXAPELKETA Asteasun jarriko dute abian hilaren 29an; hiru bertsolariz osaturiko lau taldek hartuko dute parte aurten 5

Ezker Abertzaleak gogor kritikatu ditu Udalak onartutako aurrekontuak

TOLOSA Jokin Bildarratzi «gezurretan» ibiltzea leporatu diote behin eta berri; gastu soziala murriztu izana ere salatu dute 2

Pello Olanoren askatasuna eskatu dute «eskualdeko manifestazioan»

TOLOSA Ehunka lagun irten ziren Triangulotik lizartzarri elkartasuna azaltzeko asmoz 3



'Utzi Lizartza eta Tolosaldea pakean. Pello Askatu' zen martxaren leloa. J. G.

**EUROPAKO MOZORRO
DENDARIK HANDIENA**

(1.000 m²)

Elbarrena Industrialdea
Tel.: 943 888 232 Zaldibia



IHAUTERIAK 2010

www.JAIKDEDA.com



«Onartutako aurrekontuek Udala geldialdira eramango dute»

Tolosa » 2010erako egindako aurrekontua eta hau gauzatzeko modua kritikatu dute Ezker Abertzaleko hautetsiek.

ERREDAKZIOA

Tolosako Ezker Abertzaleko hautetsiek Udalak joan den urteko azken plenoan onartutako aurrekontuak aztertu ostean, hauen inguruko hainbat kritika egin dituzte. Hasteko, aurrekontua bera «krisian» dagoela deritzote. Izan ere, beraien ustetan «2010ean Udalaren jarduna izoztuta egongo da eta geldialdira eramango du». Horren arrazoia ondorengo dela diote, «%75ean murriztu da inbertsio ahalmena. Hala, mantenu inbertsioak soilik egiteko erabakia hartu du Udal Gobernuak».

«Aurrekontu itxiak»

Ezker Abertzalekoek egindako agerraldian hainbat gai izan zituzten hizpide. Beraien eskubideak urratuak izan eta abenduan egindako Osoko Bilkuran hitza ukatua izan zitzaizela ere nabarmendu zuten. Honekin lotuta, erreferentzia egin zioten Jokin Bildarratz alkateteak eskualdeko egunkari batera bidalitako gutunari, eta erantzuteko aprobeixatu. Hala, garbi utzi zuten, «alkate izan den sei urtetan, Bildarratzek ez digu inoiz bere kabuz inolako dokumenturik (aurrekontu, proiektu...) eman, eta ez gaitu inoiz bilerabakar batera deitu ez eta gure parte-hartzea ezertarako eskatu». Halaber, azaldu zuten, aurrekontua beraiek eskatu zutela, eta jaso zutenean, agiria itxita zegoela eta bertan ezin zela inolako aldaketarik egin.

Alkatea «gezurretan» dabilela diote, eta ez duela jasaten «bere esanetan makurtzen ez den talde bakarra izatea, iaz zergak %5 igozteko zuen asmoa pikutara bidaltzea, aurrekontu iruzurri eta anti-sozialak agerian jartzea, eta EU-DELEko lehendakari bezala bere makurkeria salatzea, ordezkatzen dituen Udalentzat finantziazio justua ez eskatzeagatik».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Jangelako begiralea.** Ikaztegi-tako Herri Eskolako jangelan begiraleen ordezkapenak egiteko pertsonak behar dira. Epea: 2010eko urtarrilaren 25a arte izen-ematea eta baldintzak ikastetxean. Deitu 943 65 21 71 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Kotxea.** Honda Civic (bi urte)



Herenegun egin zuten agerraldia Silvana Ostiza, Hektor Espin eta Antton Izagirre hautetsi independentistek. E. EZEIZA

Udalen egoera ekonomikoa

Udalek oro har bizi duten krisi ekonomikoa inguruan ere mintzatu ziren herenegun Ezker Abertzaleko hautetsiak. Tolosako arena ere larria bada ere, hau erabaki politikoa batzuen ondorio dela ondorioztatzen dute, eta «krisiaren lehen erantzulea sistema ekonomiko eta politikoa dela, eta nola ez, sistema hori sustatzen eta kudeatzen dutenak». Krisiaren beste eragileetako bat bezala aipatzen dute Euskal Herriaren burujabetza politikoa eza. Hau da, ahalmen ekonomikoa kudeatzeko bolderik eza, «ondorioz, estatuek lehentasun ekonomikoan menpe uzten dituzte herritarrak».

Udalek kudeaketarako diru gutxiago izatearen arrazoi nagusietako bat, Foru Fondoaren gutxitzea da. Honekin lotuta, Bildarratzek, EUDELEko lehendakari ere izatean, «ordezkatzen dituen Udalen eskubideak babestu, eta finantziazio justua zein nahikoa aldarrikatu behar dituela» adierazi zuten herenegun Hektor Espinek.

Aurrekontuak egiteko modua ere kritikatu zuten herenegun agerraldian, herri partaidetzaaren ikuspegitik, «inondik inora, eredu-garriak» ez direla esanaz.

«Gastu soziala gero eta murriztagoa»

Aurrekontu atzerakoi bezala deskribatu dituzte Ezker Abertzalekoek, Udalak onartutakoak, eta az-

ken urte hauetan eman den gastuen bilakaera ikusita, gastu soziala murriztu izan dela deritzote. «Egunetik egunera behar sozialak handiagoak direnean, krisiaren moztorrepean, murrizketak egon dira» diote. Bitartean, erabiltzaileen ekarpenak, Eusko Jaurlaritzaren laguntza bidezkoak, %10ean igokio direla salatzen.

Pertsonal gastuei dagokionean Udalak «gezurra» dioela salatu zuten Antton Izagirre alkate ohiak. Bildarratz alkateak egindako memorian azaltzen baitu, %3,44ko murrizketa egon dela partida honetan. Honen arrazoia iazko au-

rrekontuak «faltsuak» izatearena omen da. Pertsonalari zegokion atalean, gastuetan, 2008ko urrian, %5eko igoera emango zela aurrekusi zuten Udalak. Baina ondoren, %1,4koa aplikatu zen, neurri honetan igo baitzen azkenean KPIa. Ondorioz, pertsonal gastuetako aurrekontuan %3,6ko desfasea zegoen. Hau ikusita, Ezker Abertzalekoek iazko aurrekontuak aldatzea eskatu zuten, aditzera eman zutenek aldatuta hauek ez ziren gauzatu. Hori dela eta, «pertsonal gastuak %3,44 murriztu direnaren» gezurra dela garbi utzi nahi izan dute.

» AURREKONTUEN INGURUAN EMANDAKO DATUAK

Gizarte zerbitzuak

- **Jarduerak.** Aktibitateak egiteko partidan iaz baino 7.214 euro gutxiago izango dira.
- **Kontratuak.** Beste enpresei kontratuak egiteko 4.725 euro gutxiago izango dira.
- **Diru laguntzak familiei.** 30.281 eurotan murriztuko dira.
- **Diru laguntzak elkartei.** 18.800 eurotan murriztuko dira.
- **Erabiltzaileen ekarpenak, Eusko Jaurlaritzaren laguntza bidezkoak.** %10 igokio dira.

Beste zenbait partida

- **Nazioarteko laguntza.** %25 jaitsiko da (26.600 euro hain zuzen).
- **Garapen ekonomiko eta merkataritza jardueretako ekarpena.** %10 murriztuko da, 19.293 euro hain zuzen ere.
- **Hezkuntza zerbitzuetako diru laguntzak.** %23 jaitsiko dira. 64.800 euro gutxiago bideratuko dira atal honetara.
- **Lurreko garraioa.** %29an murriztuko da, 64.390 eurotan.
- **Kultur zerbitzuak.** Pertsonal gastuak handitzen dira, jende berria kontratatu delako, baina jardueretarako partida 55.475 eurotan murrizten da.
- **Liburutegia.** 10.130 euro gutxiago bideratuko dira hona.
- **Musika eskola.** 2.471 euro gutxiago emango zaizkio.

- **Erakusketak.** 3.600 euro gutxiago.
- **Zinema jarduerak.** 43.870 euro gutxiago.
- **Kirol jarduerak.** 8.000 euro gutxiago.
- **Jaiek.** 61.405 euro gutxiago gastatuko dira 2010ean.
- **Euskarazko dirulaguntzak.** 21.000 euro gutxiago bideratuko dira hona.
- **Euskaltzgia.** Murrizketak egongo dira nahiz eta HABEren hitzarmenaren arabera laguntzak gehitu.
- **Gazteria saila.** 38.180 euroko murrizketa egongo da departamentu honetan.
- **Azokak.** Murrizketak egongo dira sail honetan. Ondorioz, nekazari eta abeltzainak izango dira kaltetuak. Bestalde, bere horretan jarraituko dute «propaganda eta marketinga bideratutako ekimenek (Txuletaren festa, bisiguaren...).
- **Gastu berriak.** Krisi garaia izan da ere, gastua handitzen duten bi erakunde Tolosa Lotzen (128.700 euroko gastua) eta Tolosa Lantzen (256.166 euro gehiago) mantentzen dira.
- **Inbertsio ahalmena.** 2010erako %75 murriztu dira inbertsio ahalmenak, mantenu inbertsioak bakarrik egitearen erabakia hartu du Udalak.

KZ gunea zabalik dago berriro eta ikastaro berriak antolatu dituzte

Anoeta » Bi ordutako saio arinak nahiz informazio landuagoa eskaintzen dutenak prestatu dituzte urtarrilerako.

ERREDAKZIOA

Urte berriari begira, administrazio elektronikoa inguruko doako ikastaro bat antolatu du KZ guneak urtarrilaren amaierarako. 21etik 28ra bitartean izango da, 18:00-20:00etara, eta tramite administratiboak internet bidez nola egin azalduko dute bertan. Interesatuek udaletxean edo kiroldegian eman dezakete izena.

Bestalde, 2 orduko ikastaroak ere egin daitezke gai desberdinen inguruan: Sare sozialak, skype, google tresnak, blogger, youtube, wikipedia, google maps eta earth, zuhaitz genealogikoa, megaupload, softonic, gmail, flickr, wifi, picnic, ikus-entzunezkoak, google docs, eBay, iragarkiak interneten, software libre, eta google sites.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

ONCEren 7/39 jokoaren bigarren saria, ia 20.000 euro, Tolosara

ERREDAKZIOA

ONCEren 7/39 jokoaren herenegungo zozketak ia 20.000 euro utzi ditu Tolosan. Hain zuzen ere, bigarren saria izan da Tolosan suertatu dena, bertan egin baitzen apustu irabazlea.

19.238,37 euro zegozkion herenegungo ONCEren 7/39 jokoaren bigarren sariari. Katia Pino Camero saltzailearen eskutik heldu da dirua, 7/39ren apustua bere salmenta gunean egin zelako Tolosako Arostegietakalean, Arocena harategiaren parean, hain zuzen ere.

7/39 jokoan 39 zenbaki daude hainbat bloketan banaturik. Horietatik guztira zazpi aukeratu behar dira apustua egiteko nahi den ordenari jarraituz. Zazpi zenbaki horiekin apustu arrunt bat egiten da eta guztira 8 apustu arrunt egin daitezke. Horretaz gain, boletoko bakoitzak erreintegro zenbaki bat automatikoki darama soinean, Otik 9ra. Astean bi zozketa burutzen dira, ostegun eta igandetan, eta salmentarekin bildutakoaren %55a da saritan ematen dena. ONCE saria lortu duen herritarra zoriondu du, eta «parte-hartzaileen solidaritatea» eskertu nahi izan du «euren esfortzua lagungarria delako ONCEk egiten duen lan soziala garatzeko».

Udan Errusiako haurrak hartzeko deialdia zabaldu du Bikartek

ERREDAKZIOA

Udan familiek Errusiako haurrak hartzeko deialdia luzatzen du Bikartek elkarteak. Hala informazioa zabaltzeko erakusketa jarri dute Kultur Etxean. Hilaren 20ra arte egongo da ikusgai.



Pello Olanori elkartasuna eskaini diote

POLITIKA • Pello Olanori lizartzararren «espetzeratzea eta jasandako torturak» salatzeako, manifestazioa egin zuten atzo iluntzean Ezker Abertzaleak deituta Tolosan. 400 lagun inguruk hartu zuten parte bertan, Olanori eta bere senidari elkartasuna adieraziz. Martxaren leloa *Utzi Lizartza eta Tolosaldea pakean. Pello Askatu Torturari stop!* izan zen. Familiak atzo eduki zuten lizartzarra ikusteko aukera Soto del Real espetxean. «Animoz ondo» zegoela esan zuten Olanoren senitartekoek. I. GARZIA

Joseba Rojo hirugarren sailkatu da Txekian, Munduko Zirkuituko proban

Kirola • Iraupen eskiko Munduko Txapelketan hartuko dute parte Joseba eta Imanol Rojok eta Xabier Saizarrek.

ERREDAKZIOA

Tolosako eskiatzaileentzat ez dago etenik, eta garaikurrak bata bestearen atzetik ekartzen dituzte, duten «maila onaren» adierazle. Azkena, pasa den igandean Joseba Rojok Txekian izandako Munduko Txapelketan eskuratu zuen hirugarren postua.

2009. urteko Tolosako kirolari onenaren saria jaso berri duen Joseba Rojo, sari hori ongi merezita duela ari da erakusten, parte hartzen duen probetan podiumean amaitzen ikustea oso ohituta baitu jendea. Hala izan zen pasa den igandean ere, Txekiako Bedrichoven egin zuten Munduko Zirkuitoko lasterketan. 25 kilometroko proba egin behar izan zuten iraupen eskiatzaileek klasiko eran eta Joseba Rojo tolosarra hirugarren heldu zen helmugara, mila lasterkariren aurretik. Garaikur bat gehiago, beraz, bere palmaresean gehitzeko.



Pasa den igandean hirugarren sailkatu zen Joseba Rojo Txekian izan zen proban. HITZA

Baina ez da Joseba Rojoren Tolosako eskiatzaileek lortu duten sari bakarra. Azaroan Eskandinavian zehar ibili baziren, abenduan Alpetar mendikatean mugitu dira Joseba eta Imanol Rojo, Suitza, Dolomitetan eta Tirolen, besteak beste. Eguberrietako jai egunetan egun gutxi batzuk etxean igarotzeko baliatu zituzten, eta Pirinioetako lasterketan parte hartzeko ere aprobetxatu zuten. Hala, Jose-

ba Rojo Font Romeun irabazle izan zen, eta bere anaia Imanol (junior mailan) eta Xabier Saizar (kadete mailan) Somporten egin zuten Mayencos proban irabazle izan ziren.

Urtarrilean Munduko proba

Alpino Uzturreko hiru eskiatzaile hauek erronka polita dute hilabete honetarako. Izan ere, Joseba Rojok 23 urtez azpikoen Mundualjo-

katuko du, eta Imanol Rojok eta Xabier Saizarrek junior mailako Mundiala. Txapelketa hau Alemaniako jokatuko dute hilaren 24tik 31ra. Aurretik, ordea, Italian hainbat lasterketan ariko dira.

Alpino Uzturre elkarte «oso pozik» dago elkarte eskiatzaileak lortzen ari diren emaitzekin, eta hilabete honetan dituzten probetan ere goiko postuetan mantenduko direla espero dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Prestakuntza eskaintza herritarren beharretara

Gizartea » Eskualdeko eskaintza kudeatzeaz gain, Tolosaldean Ikastn zerbitzuak ere hainbat ikastaro antolatzen ditu dagoen eskariaren arabera.



Informatika ikastaroa izaten da arrakasta handiena duenetako bat. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldeko prestakuntza eskaintza kudeatzen duen zerbitzua da Tolosaldean Ikastn. Laugarren urtea da aurtengoa martxan jarri zenetik, eta urtetik urtera gorantz doa bai zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua bai eta zerbitzuak berak antolatzen dituen ikastaroena ere.

Gemma Zelaia da Tolosaldean Ikastn zerbitzuaren arduraduna, eta bere egiteko nagusia eskualdeko eskaintza kudeatu eta herritarrek euren beharren arabera orientatzea da. Horretarako, herritarrek www.ikastn.com webgunea jo dezakete, bertatik eskualdean antolatzen diren ikastaro guztiak ikusi baitaitezke, eta baita izena eman ere. Horrez gain, ikastaro zehatz bati buruzko informazioa ere eska daiteke, diru laguntzen eta beken inguruko informazioa topa daiteke eta erabiltzaile

bezala izena eman dezakezu, ondoren informazioa jaso ahal izateko.

Erakundeen edota elkarten kasuan ere Ikastn zerbitzura jo dezakete, esaterako, ikastaro bat antolatzeko unean, izan ere, ikastarorako irakaslea topatzen edota hori gauzatzeko lekua bilatzen laguntzen dute, besteak beste. Euren webgunean ere atal berezibat dute horretarako. Halaber, zerbitzuaren baitan dauden erakundeek euri-buruzko informazioa eta argazkiak sartzeko aukera ere badute.

Bestalde, webguneaz gain, Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan zerbitzuak duen bulegora ere jo daiteke edozein zalantza argitzeko, eta 943 65 11 47 edo 615 77 56 78 telefono zenbakietara ere hots egin daiteke.

BOZI ikastaroak

Prestakuntza ikastaroak kudeatzeaz gain, Ikastn zerbitzuak ere antolatzen ditu ikastaroak Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzaren baitan. Dagoeneko hasita dagoen sendabelarren ikastaroak izaten duela harrera handiena dio Gemma Zelaia, «baina baita informatikak, emozioen tailerrak eta sukaldaritza ere». Hain zuzen ere, datorren astelehenean hasiko da informatika ikastaroa eta elikagaien manipulazailer txartelarena, baina horietan dagoeneko ezin da izena eman, «jende ugari eman baitute».

Aukera handia dago, ordea, baina norbere beharretara egokitzen dena ez badago horien artean, Ikastn arduratuko da horren inguruko informazioa eskaintzeaz.

» IKASTAROAK

Sendabelarrak

- **Edukia.** Hauen erabilera osasun fisiko eta buru osasunean. Itziar Salegi adituak emango du.
- **Hasiera.** Urtarrilaren 8a.
- **Amiera.** Urtarrilaren 29a.
- **Prezioa.** 50 euro.
- **Iraupena.** 12 ordu.
- **Egunak.** Ostiraletan.
- **Ordutegia.** 17:00-20:00.

Emozioen tailerra (1. maila)

- **Edukia.** Hurbilketa sakona alfabetizazio emozionalean, hitzeko hizkuntzan eta gorputz-imitzio hizkuntzan, besteak beste.
- **Hasiera.** Urtarrilaren 13a.
- **Amiera.** Martxoaren 10a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 15 ordu.
- **Egunak.** Asteazkenetan.
- **Ordutegia.** 18:00-21:00.

Informatika hastapena eta Internet

- **Edukia.** Oinarrizko informatika ikastaroa da, ordenagailuaren elementuak, ezaugarri nagusiak edota erabilera bezalako aspektuak landuko direlarik.
- **Hasiera.** Urtarrilaren 18a.
- **Amiera.** Otsailaren 5a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 30 ordu.
- **Egunak.** Astelehenean ostiralean.
- **Ordutegia.** 09:30-11:30.

Word aurreratua / Word hastapena

- **Edukia.** Word programa oinarrizko maila batean ikasteko aukera emango da.
- **Datak.** Aurreratuen kasuan, urtarrilaren 18tik otsailaren 2ra. Bigarrena, otsailaren 22tik martxoaren 5era.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** Bien kasuan, 20 ordu.
- **Egunak.** Aurreratuen kasuan, astelehenean ostiralean, eta bigarrena astelehenean ostiralean.
- **Ordutegia.** 18:00etik 20:00etara lehenengo ikastaroa eta bigarrena 09:30etik 11:30era.

Elikagaien manipulazailer txartela

- **Edukia.** Elikagaiak ondo kontserbatzeko ezarritako dauden tresna eta prozedurak erabiltzea. Elikagaien pozoidura eta infekzioak antzematea. Elikagaiak manipulatu eta kontserbatzea tratamendu higienikoak zehazten duen moduan.
- **Hasiera.** Urtarrilaren 18a.
- **Amiera.** Urtarrilaren 21a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 6 ordu.
- **Egunak.** Astelehena eta osteguna.
- **Ordutegia.** 18:00-20:00.

Ettxeko kudeaketa eta mantenua

- **Edukia.** Ettxeko tresnak ezagutu eta horien erabilerari buruzko informazioa eta praktika.
- **Hasiera.** Otsailaren 1a.
- **Amiera.** Otsailaren 4a.
- **Prezioa.** Doan.

- **Iraupena.** 9 ordu.
- **Egunak.** Astelehena eta osteguna.
- **Ordutegia.** 17:00-19:15.

Sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia

- **Edukia.** Ikastaroa Itziar Salegi adituak emango du. Horien erabilera osasun fisiko eta buru osasunean duen eragina aztertuko da.
- **Hasiera.** Otsailaren 3a.
- **Amiera.** Otsailaren 24a.
- **Prezioa.** 50 euro.
- **Iraupena.** 12 ordu.
- **Egunak.** Asteazkenetan.
- **Ordutegia.** 17:00-20:00.

Excel aurreratua / Excel hastapena

- **Edukia.** Excel programa oinarrizko maila batean ikasteko aukera eman da.
- **Datak.** Otsailaren 3tik martxoaren 1era bitarte eta martxoaren 8tik martxoaren 22ra bitarte.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** Bien kasuan, 20 ordu.
- **Egunak.** Aurreratuen kasuan, astelehenean osteguna eta hastapenekoan astelehenean ostiralean.
- **Ordutegia.** Aurreratuen kasuan, 18:00etatik 20:00etara. Hastapenekoan 09:30etik 11:30era.

Joskintza tailerra

- **Edukia.** Tailer honetan baserriar jantziak egiten erakutsiko dute.
- **Hasiera.** Otsailaren 23a.
- **Amiera.** Apirilaren 20a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 42 ordu.
- **Egunak.** Astearteetan eta ostegunetan.
- **Ordutegia.** 17:30-20:30.

Mobilizazioak eta transferentziak

- **Edukia.** Mugitzeko laguntza behar dutenekin aritzeko orduan jakin beharrekoak.
- **Hasiera.** Martxoaren 4a.
- **Amiera.** Martxoaren 5a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 8 ordu.
- **Egunak.** Osteguna eta ostirala.
- **Ordutegia.** 09:00-13:00.

Euskal sukaldaritza

- **Edukia.** Bertako oinarrizko jakiak prestatzen erakutsiko dute.
- **Hasiera.** Martxoaren 9a.
- **Amiera.** Martxoaren 30a.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** 18 ordu.
- **Egunak.** Astearteetan eta ostegunetan.
- **Ordutegia.** 17:00-19:00.

Dementziak: jarduerak eta jokabideak (2 ikastaro)

- **Edukia.** Motak aztertuko dira eta baita eduki beharreko jokabideak.
- **Datak.** Martxoaren 22tik 26ra eta bigarrena apirilaren 19tik 23ra.
- **Prezioa.** Doan.
- **Iraupena.** Bien kasuan, 15 ordu.
- **Egunak.** Astelehenean ostiralean.
- **Ordutegia.** 16:00-19:00.

Jesus Torquemadarekin nazioarteari buruzko azterketa

Tolosa » Apirilaren 12tik ekainaren 14ra arte nazioartearen egoerari buruzko ikastaroa antolatu du Ikastn zerbitzuak.



Jesus Torquemada. HITZA

I. TERRADILLOS

Tolosaldean Ikastn zerbitzuak 15 ikastaro antolatu ditu 2010. urteko lehen lauhilabetekorako. Horiez gain, Nazioarteko egungo egoerari

buruzko tailerra ere antolatu du. Hau Jesus Torquemada nazioarteko gaietan aditua den kazetariak emango du apirilaren 12tik ekainaren 14ra. Astelehenean izango da, beraz, 19:00etatik 21:00etara. Guztiira 10 saio izango dira. Tailerra Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentrokotara emango du. Tailer honetan parte hartzeko ordaindu egin beharko da, baina, oraindik zerbateko zehaztu gabe dago; «hala ere, prezio baxua izango da, 30 euroren bueltakoa», azaltzen du Gemma Zelaia Tolosaldean Ikastn zerbitzuaren arduradunak.

Tailerraren helburua egungo munduaren egoera orokorra eza-gutzea izango da. Arreta berezia eskainiko dio egunerokotasunean pisu handiena duten gaiei, eta baita etokizunean protagonismoa har dezaketenei. Munduaren ikuspegi geopolitikoa aztertuko da, eta horretan eragina duten ezaugarriak ere hartuko dira kontuan, hala nola, immigrazioa, globalizazioa, ingurugiroa edota gizartearen joerak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Beterriko III. Bertsolari Txapelketa hilaren 29an hasiko da Asteasun

Bertsolaritza » Asteasu, Zizurkil eta Villabonako elkarteetan izango dira bi kanporaketetako eta finaleko bertso-afariak.

ENERITZ MAIZ

Oraindik ere gogoan dugu abenduaren 13an izan zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa handia. Saioz saio, olatuz olatu, ikuslerik ez zen falta izan eta BEC-en garbi geratu zen bertsolaritzak jendea erakartzen duela. Bertsosaz gozatu nahi duenak Beterri aldean badu bertso, afari eta lagunarte paregabeaz gozatzeko aukera.

Hirugarren urtez Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Beterriko Bertsolari Txapelketa antolatzen du eta datorren asteburuan emango zaio hasiera Asteasuako Aitz-Ondo Elkarteetan. Taldekako txapelketa honetan lau taldek parte hartuko dute eta bakoitzak hiru bertsolari izango ditu. Saio hauekin bertsolari gazteei plaza berriak egiteko aukera eman nahi zaie. Era berean jendaurrean jardun eta trabatze ko aukera paregabea dute bertsolariek. Bestalde, bertsozale-tasunaren erroak Beterri sakontzea du helburu Larramendi Bazkunak antolatzen duen txapelketa honetarako.

25-30 urte arteko gazteei zuzenduta dagoen txapelketa da eta bertsozale gazteek bertsokera, ariketa eta doinu berriak erabiltzeko aukera ballatzen dute bertan.

Iazko edizioan, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako talde bana lehiatu zen. Azkenean txapela, Hontza izenarekin aurkeztu ziren Uxue Alberdi, Jokin Labaien eta Ander Lizarralde osaturiko Gipuzkoako hirukoak irabazi zuten.

Lau Talde, hiru bertsolari

Lau taldek hartuko dute parte eta talde bakoitza hiru bertsolariz osatua dago. Aurtengoan, aurreko urtean ez bezala, parte hartzaile guztiak gipuzkoarrak izango dira.

Sorgin-Orratzak deituriko taldea Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoak osatua da. Labezomorroak taldea, Iñigo Izagirre, Jokin Uranga eta Jokin Labaien izango dira. Armiamark taldea, Haritz Etxeberria 'Ministrot', Arkaitz Oizartzabal 'Xamoak', eta Beñat Lizasok osatua izango da eta laugarren eta azken taldea Mandeu-lik deiturikoa izango da eta Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezolak eta Jon Martinek osatu dute.

Euskal Herriko Txapelduen berria Maialen Lujanbio hernaniar bertsolaria dugu, baina antolatzaileek Euskal Herriko Txapelketa emakumezko batek irabazi duen urtean, ez dute lortu «hainbeste



Iaz Hontza taldeak irabazi zuen; Ander Lizarralde, Jokin Labaien eta Uxue Alberdik osatua izan zen. HITZA

zomorrorren» artean emakume bakar bat ere tartekatzea. Aurten txapelketako parte hartzaile guztiak gizonak izango dira. Hala ere, ziur daude ez dela bertso eta umore girorik faltako.

Kanporaketak

Lehen kanporaketa, urtarrilaren 29an, ostiralez izango da Asteasu-ko Aitz-Ondo Elkarteetan. 20:30ean elkartuko dira eta bertan Sorgin-Orratzak eta Labezomorroak tal-

Bertsolari gazteek bertsokera, ariketa eta doinu ezberdinak erabiltzen dituzte

deak izango dira bertsotarako prest. Bertsolariei gaiak jartzeko lanaren ardurua Egoitz Aizpuruk izango du. Bigarren kanporaketa Zizurkil Goiko Zentroan otsailaren 6ean, larunbatean izango da. Bertan Armiamark eta Mandeu-

lik taldeak lehiatuko dira eta bertsotarako gaiak Iker Iriartek jarriko dizkie. Bi kanporaketa hauetatik talde bana sailkatuko da finale-

Aurten txapelketako partaide guztiak gipuzkoarrak izateaz gain gipuzkoak izango dira

rako. Finala berriz, Villabonako Irrintzi Elkarteetan jokatu da otsailaren 13an 20:30ean hasita. Sailkatzen diren taldeen gai-emailea Villabonako bertsolaria den Amaia Agirre izango da.

Epaimahaiaren lana berriz, iazko txapelketan bezala, entzuleen esku egongo da. Saio bakoitzaren amaieran bertso-afarian parte hartu duten entzuleek, talde bataren edo bestearen aldeko botoa eman beharko dute. Honela, entzuleek erabakiko dute zein taldek merezi duen Villabonako finalera pasatzea.

» BETERRIKO III. BERTSOLARI TXAPELKETA

Lau talde

- **Sorgin-orratzak.** Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoak osatua.
- **Labezomorroak.** Iñigo Izagirre, Jokin Uranga eta Jokin Labaien izango dira.
- **Armiamark.** Haritz Etxeberria 'Ministrot', Arkaitz Oizartzabal 'Xamoak', eta Beñat Lizasok osatua izango da.
- **Mandeu-lik.** Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezolak eta Jon Martinek osatua da.
- **Gai-emaileak.** Egoitz Aizpuru, Iker Iriarte eta Amaia Agirre.

Hiruko edo krisi txartelak salgai daude

- **15 euro.** Bertso afari bakoitzaren kostua izango da.
- **40 euro.** Hiruko txartela edo krisi txartela deitu diote. Txartel honek hiru bertso-afarietara joateko balio du (5 euroko beherapena izango luke).
- **Non erosi.** Larramendi Bazkuna eta Aiurriren egoitzetan, Villabonako Ogiogoxo okindegian, Zizurkilgo Iriarte Kultur Etxean, bertso-afariak egingo diren hiru elkarteetan edota 943 30 07 33 telefonora deituz eskura daitezke.

Kanporaketak eta finala

- **Urtarrilak 29, Asteasu.** 20:30ean Aitz-Ondo Elkarteetan Sorgin-Orratzak eta Labezomorroak taldeak izango dira. Gai-emailea, Egoitz Aizpuru.
- **Otsailak 6, Zizurkil.** Zizurkil Goiko Zentroan 20:30ean Armiamark eta Mandeu-lik arteko lehia izango da. Gai-emailea Iker Iriarte izango da.
- **Otsailak 13, Villabona.** Irrintzi Elkarteetan 20:30ean aurreko bi kanporaketetatik sailkatutako taldeen arteko izango dira. Gai-emailea Amaia Agirre.

Gozogintza ikastaroa eta Memoria suspertzeko tailerra

Irura » 24 eta 30 orduko ikastaroak antolatu dituzte. Izena emateko azken eguna hilaren 21a da.

E. MAIZ

Urte berriarekin batera Irurako Udalak bi ikastaro antolatu ditu. Bertan irurarrak gain, inguruko herrietako biztanleek ere izena eman dezakete. Batetik Gozogintza ikastaroa eta bestetik, memoria suspertzeko tailerra izango dira.

Gozogintza eta memoria

Gozogintza ikastaroa urtarrilaren 25an hasi eta martxoaren 10a bitartean, astelehenean eta asteazkenean 19:00etatik 21:00etara izango litzateke. Ikastaroak guztira 24 ordu izango ditu eta ikastaro honen kostua 20 eurokoa izango da, langabetu eta jubilatuak 15 euro kostatuko litzateke.

Bestetik, Memoria suspertzeko tailerra antolatu dute eta 30 orduko iraupena izango du. Martxoaren 16an hasi eta astearte eta ostegunetan, 17:30etik 19:30era izango da. Honen kostua 25 eurokoa da eta langabetu eta jubilatuentzat 16koa. Izena emateko edota informazio gehiago eskuratzeko, udal-lexean edo liburutegian dago aukera, urtarrilaren 21a baino lehen.

'Niko eta izarretarako bidea' eta 'Avatar' filmak Gurea Zineman

Zinea » Gazako sarraskiaren I. urteurrena dela eta, *To shoot an elephant* dokumentala Alegia eta Leidorren.

E. MAIZ

Gaur Gurea Zineman *Niko eta izarretarako bidea* filma eta 19:30ean eta 22:30ean *Avatar* filmak ikusteko aukera izango da. Igandean, 17:00etan hasita *Niko eta izarretarako bidea* filma eta 19:30ean *Avatar* eskainiko dituzte. Astelehenean, hilak 18, ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean *Avatar* filma egongo da ikusgai.

Bestalde, astelehenean Gazako sarraskiaren I. urteurrena dela eta, *To shoot an elephant* dokumentala eskainiko dute Alegiako Gaztetxean, 21:30ean. Dokumentala Leidor aretoan doan ikusteko aukera ere egongo da, bi saiotan gainera, 19:15ean eta 21:45ean.



Garikoitz Altuna, Altuna II.a, partida batean pilota bueltatzeko ahaleginean. JOSEBA ZABALZA

Altuna II.a pilotariaren begiko lesioak diagnostiko larria dauka

Amezketak » Leku txarrean dauka haustura eta lesiotik osatzeko tratamendua Bartzelonako klinika batean jarri diote.

IMANOL GARCIA

Garikoitz Altuna Erremonteko Binakako Txapelketa oso ona egiten ari zen, finalerdietarako ondo jokatuta sailkatuz. Baina ez zuen finalerdirik jokatzerik izan, lesio larri bat izan zuelako. Lehia garrantzitsuen aurretik, enpresak antolatu zuen partida batean, ezker begiaren ondoan pilotakada bortitza jaso zuen. Altuna berak azaldu duenez, begian duen lesioaren diagnostikoa «larria da».

Kezkatuta dago pilotari amezketarra. Kolpea jaso eta gero sei egun ez izan zen Gipuzkoako Ospitalean. Han begiaren ondoko hezurra ebakuntza egin zioten. Puskatu egin zitzaion eta bi plaka txiki jarri zizkieten hezurra osatzeko. Lesio larriena begikoa da, begi-globoari eragin baitio. «Ez dut gehiegi ikusten», azaldu du pilotari amezketarrak.

Gipuzkoako Ospitaleko oftalmologoak azaldu zion lesio garrantzitsua zuela eta Bartzelonako IMO Klinikara joatea gomendatu zion. Bertan izan da aste honetan. «Azterketa sakona egin didate eta diagnostikoa nahiko larria da hasiera batean. Bi haustura ditut eta

horietako bat toki txarrean», dio Altuna II.ak. Tratamendua jarri diote eta hilabete batera berriro joan behar du nolako eragina izaten ari den ikustera. Zehazki, haustura orbaintzeko eta bertan dituen odolbultak garbitzeko injekzioa eman diote klinika horretan. «Bergia nola geldituko den bermerik ez daukat. Esperantzak badituz lesiotik osatzeko, baikorra izan behar da, baina oraingoz gauzak horrela daude».

Izugarritzko pilotakada

Ondo gogoratzen du nola gertatu zen lesioa. «Ez nuen konorterik galdu eta dena ondo gogoratzen dut», dio amezketarrak. Finalerdietako lehen partidaren aurretik jokatutakoa partida batean gertatu zen, pilota jaialdi batean. Altunak pilota errebotera jo zuen eta bera kontraktantzan gelditu zen, zabalduen. Santi Aizpurua atzelariari pilota errebotetik etortzean, ez zitzaion saskian ondo sartu, baina indar handiarekin ateratzen zen pilota. «Ni han nengoen, bere parean, eskuinaldean, hiru-lau metrotara», gogoratzen du Altuna II.ak. «Jo zionean ez zidan denborarik eman ezterarako. Justu-justu sekulako kolpea sentitu nuen eta gogoratzen naiz eserita gelditu nintzelan».

Kolpea oso indartsua izan zen. «Kaskoaren izkina harrapatu zuen. Egin didan aberia egiteko, kaskoa izan ez banu, konfiantza ez nuen izango. Nik kaskoa ez

nuen ikusi baina puskatuta gelditu zela esan zidaten», azaldu du erremonete jokalaririk. Hartu izan ditu beste pilotakada batzuk baina hain toki txarrean ez. «Gainontzeko pilotakadek ez zuten garrantzirik izan. Ahaztu egiten dira. Egun batzuetan izaten dira ubel batzuk... baina oraingoa ezberdina da».

Txapelketa ona egiten ari ziren Altuna II.a eta Etxeberria III.a. «Ligaxkako bi partidak irabazi genituen, nahiko ondo jokatuta, eta finalerdietarako sailkatuta geunden. Esperantzak bagenituen, baina bertan behera gelditu ziren», zehazten du amezketarrak.

Azkeneko urtetan finala jokatzerik ez du izan Altuna II.ak. Iaz finalerdietara iritsi zen eta aurten ere sailkatuta zegoen. «Ilusio handiarekin geunden aurten», dio. «Ondo ari ginen biok. Etxeberria memento onean zegoen eta ni ere bai. Lesioa izaterakoan, une horretan, pena ematen dizu. Pilotakada jaso nuenean, finalerdia jokatzerik ez nuela izango eta txapelketari agur esan beharko niola pentsatu nuen. Artean ez nekien zenbaterainoko aberia neukan. Gero konfiantza zara hori bigarren mailakoa dela, garrantzitsua lehenbailehen ondo jartzea dela».

Oso final parekatua

Binakako Txapelketa jarraitzen ari da Altuna II.a: «Gaurko finala oso partida polita dela iruditzen zait. Bi bikoteak oso indartsuak

dira, finalean zerbaitengatik daude. Zeberio II.ak aurten seigarren finala irabazteko aukera duela zehazten du: «Elizalde intendentearekin berdinduta dago txapelkopuruetan eta aurten aukera dauka bat gehiago irabazteko Zeberioi. Pentsatzen dut ilusio handia izango duela marka hori hausteko».

Finaleko bi bikoteak «oso onak» direla dio amezketarrak. «Badiola oso pilotari erregularra da, oso segurua. Beti tokian kokatuta egoten da. Lagunari oso ondo irekitzen dio. Agian ez da kolpearekin asko puskatzen duen pilotaria, bainabai bere lana oso ondo bukatzen duena eta berme handia ematen duena. Aurrean Zeberio duela ikusita, bikote handia egiten dute».

Urritza eta Lizasok osatzen dutena aurten txapelketako «bikote orekatuenetakoa» dela uste du. «Urritza behetik gora doa. Lehen-go urteko txapelduna da eta erakusten ari da ahal handiak dituela. Punta-puntan dago eta gainera txapelketetan oso lehiakorra da, beti berea ematen duen horietakoa. Etorritzen handia du».

Lizaso atzelaria ere gorapatzen du: «Pilotari beteranoa eta maisu handia da. Atzean erakutsi du nahikoa eta asko jokatzen du. Ez du orain urte batzuetako kolpea, baina defentsa izugarria du eta artista da. Saskia oso ondo erabiltzen du». Altunak dioenez, «eragingarri guztiak ditu final handi bat izateko».

Memoria tailerrari datorren astean emango diote hasiera

Alegia » Maiatza arte, asteartero izango da; memoria lantzeko ariketak eta teknikak ematen dituzte.

ERREDAKZIOA

Datorren astean memoria tailerra hasiko da Alegiako kultur etxean. Irailean izena eman zuten parte-hartzaileek eta orain emango zaio hasiera. Tailerra hirugarren urtez antolatu dute eta hirugarren adinekoei zuzenduta dago. Bertan memoria lantzeko teknikak eta ariketak ematen dituzte. Maiatza bukaera arte iraungo du ikastaroak. Astean behin izango dira saioak, asteartean, 11:00etatik 12:00etara. Izena eman daiteke oraindik eta horretarako Kultur Etxera joan behar da.

Bestalde, eskulanean ikastaroa bertan behera gelditu da ez duela nahiko jende izena eman. Kulturak antolatutako ikastaroak, sendabellarrena eta pilatesarena, beteta daude. Udak antolatutako beste ikastaroa, aerodance-a, hasi da dagoeneko baina aukera bada oraindik izena emateko. Hirugarren adinerako gimnastika ikastaroan ere izena eman daiteke.

Elikagaien bilketa egiten ari da Udala Sahararekin elkartasunean

Alegia » Aurten eskola materiala ere bilduko da; udaletxera edo eskolara hilaren 18tik 29ra eraman ahaliko da.

ERREDAKZIOA

Tolosaldean *Piztu Itxaropena* kanpaina antolatu dute Saharako errefuxiatuen kanpamendura hainbat produktu emateko. Alegiako Udala ere, saharar herriarekin elkartasunean, bilketa bultzatzen ari da. Aurten, elikagaiez eta konpresez gain, eskola materiala bilduko dute.

Elikagaiei dagokionez, urtero bezala, lekaleak, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, arroza, azukrea eta pasta eraman daiteke. Eskola materialari dagokionez, koardernoak, arkatzak, borragomak eta txorroskiloak bilduko dituzte. Hilaren 18an hasi eta 29an bukatuko da bilketa eta udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bulegoan eta herriko eskolatan utzi daitezke produktak.



Jon Rekondo, HITZA



Arkaitz Olano, HITZA



Ruben Saralegi, ASIERIMAZ



Ibarrako nesken sokatira taldeak Abadiñon tirako du asteburuan. HITZA

Jon Rekondok Olanoren eta Saralegiren aurka jokatuko du gaur Amazabalen

Leitza » Urrezko Aizkolarien bi lehia ikusteko aukera egongo da gaur pilotalekuan, 19:00etatik aurrera.

ASIERIMAZ

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko dute gaur, hilak 16. Oraingo honetan gainera, Leitza-ko Amazabal pilotalekuan, 19:00etan. Bertan elkartuko diren 8 aizkolarietatik hiru etxekoak

izango dira: Jon Rekondo, Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi.

Bi norgehiagoka

Amazabal pilotalekuan bi norgehiagoka jokatuko dira, Eusko Label Sari Nagusiaren barnean. Bata D multzoan eta bestea C-n.

Txapelketa 19:00etan hasiko da eta Azurmendi-Ugarteburu bikoteak Olasagasti-Etxebeste edukiko dituzte aurrean. D multzoko lehia honetan 30 enbor moztu beharko dituzte aizkolariek, 6 modu desberdinetan.

Olasagasti eta Etxebeste final

laurdenetan egon nahi baldin badute, garaipena lortu beharko dute Leitzaan.

Ondoren hiru leitzarrik

Atutxa II.a-Rekondo bikoteak Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi gazteak edukiko dituzte aurkari bezala. Lau aizkolarientzat C multzoko azken proba izango da gaurkoa, ondoren final laurdenak etorriko baitira.

Hauk egin beharreko lana aurrerkoen berdina izango da, hau da, 30 enbor moztu beharko dituzte 6 modu desberdinetan.

Nafar Jokoetako sei partida jokatuko dituzte gaur

Leitza » Pilota jaialdia 10:00etan hasiko da eta Aurrerako 12 pilotarik hartuko dute parte maila desberdinetan.

A. IMAZ

Asteburuarekin batera Aurrerako bidaiak etorri ohi dira. Oraingo honetan ere hamaika partida jokatuko dituzte, bai etxean eta baita Leitzatik urrun.

'Ni ere pilotari'

Elurragatik bertan behera gelditu ziren lehiak jokatuko dituzte pilota goman, Barañainen. Jaialdia bihar, hilak 17, 10:00etan hasikoda.

Zizurko Txapelketa

Esku pilotako hainbat partida jokatuko dira Zizurren bihar, hilaren 17an. Kasu honetan, banaka irrenteko dira kantxara pilotariak, buruz-buruko txapelketa izaki. 8:45ean hasiko den jaialdian lau leitzarrek jolastuko dute.



'Ni ere pilotari' txapelketaren jardunaldi berria Barañainen jokatuko da. HITZA

» AURRERAKOEN PILOTA PARTIDAK

Nafar Jokoak Leitzaan

Gaur, 10:00etan.

Sukuntza-Eskudero	Lehen partida
O. Goikoetxea-Claudio	2. p
Txoperena-Hernandorena	3. p
J. Goikoetxea-Eraso	4. p
Garziarena-Galartza	5. p
Mitxaus-Barberena	6. p

Malerrekako Txapelketa

Bihar, (Legasan eta Beran).

Goikoetxea-Txoperena/Uharte
X. Jaunarena-Hernandorena/Andoain

Zizurko Txapelketa

Bihar, 08:45etik aurrera.

Ander Eskudero	Lehen partida
Beñat Altzelai	2. p
Joseba Eskudero	3. p
Jon Lezea	4. p

'Ni ere pilotari'

Bihar, 10:00etan Barañainen.

Ane Garro-Itsaso Morato
Andrea Casares- Amaia Ezkurdia

Maite Ruiz- Mertxe Larrion
Rebeka Contin- Iera Agirre

Euskal Herriko Sokatira Txapelketan Ibarrakoen txanda

Ibarra » Herriko taldeak emakumezkoen 540 kilokoan parte hartuko du, gizonzkoen atsedean hartuko dute.

A. IMAZ

Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da gaur, hilak 16, Abadiñon. Emakumezkoak 540 kilotan lehiatuko dira eta gizonzkoak 600eko mailan, biak goma gainean.

Gizonzkoetan ez da gure ordezkariarik egongo, Ibarrak 600 kilotan ez baitu talderik aurkeztu.

540 kilotan lau talde

Badaiotz, Beti-gazte, Sakana eta Ibarraren artean jokatzen ari dira Euskal Herriko Sokatira Txapelketa. 540 kiloko hiru jardunaldiren ondoren erabakiko da, ondoren berriz 500 kiloko hasiko dira jokatzen. Hemen ere lau talde berdinek hartuko dute parte.

Abadiñon, pisaketak 14:00etan egingo dituzte eta tiraldiak 17:00etan hasiko dira.

Zuhaitzen kimaketa ikastaroa Belauntzan

ERREDAKZIOA

Zuhaitzen kimaketa ikastaroa antolatuko du Kutzak otsailaren 1etik 4ra Belauntzan. Kutzan kontu korrontea duten bezeroek parte hartu ahal izango dute ikastaroan eta Uli mankomunitateko edo Tolosaldeko pertsona orori zabaldua dago deialdia.

Izena ematea azken epea hilaren 18a da eta bi aukera daude horretarako: 902 540 040 telefonora

deituta edo www.kutxasocial.net helbide elektronikoan.

Ikastaroaren «helburuen» artean, kimaketaren oinarriak ezagutzera; kimatze mota ezberdinak ikustea; zuhaitz eta helburuaren arabera; adarrekin egitura sendoak osatzea eta kimaketaren momentu egokiak zeintzuk diren ikastea aurkitzen dira. Lau eguneko ikastaroak 26 euroko kostua edukiko du eta euskaraz izango da.

Tolosaldeko Herria Abian!-en batzarra etzi

ERREDAKZIOA

Aldaketa sozialaren aldeko plattformak sortu dute eskualdean: Herria abian!

Nazio mailako korrontea den arren, eskualdeko dago antolatutako eta «guztiz irekia da». Horren

adibidea etziko, hilaren 18ko batzarra izango da, eragile eta norbanako guztiak gonbidatu baitituzte batzarrera.

Tolosaldeko Herria Abian! LAB sindikatuek Tolosan duen egoitzan elkartuko da etzi, 19:30ean.

